

FRIGO & TAG

IDEIA

Pertsona bat ongi bizi ahal izateko lehenengo urratsa elikadura on bat edukitzea da, horregatik egunero elikatu egin behar gara, ahalik eta hobeen, astean zehar familia bakoitzak diru asko inbertitzen baitu familiaren elikaduran.

Gaur egun, elikagai asko alferrik botatzen ditugu zakarretara, 1.300 milioi tona urtean zehar hain zuzen ere, 870 milioi pertsonak gosea pasatzen duten bitartean.

Horretarako, gizarterako lagungarri izan daitekeen ideia bat bururatu zaigu, guretzat hain baliagarriak diren elikagai eta produktuak ahalik eta gehien aprobetxatzeko eta ez xahutzeko. Bost kidez osatutako talde bat gara eta bakoitzak bere baliabide eta ahalmenak erabiliz, arazo honi soluzio bat jartzea pentsatu dugu.

Gure ideia, guztiok izan dezakegun makina txiki batean datza, inongo arazorik gabe erabili daitekeena. Frigo&Tag izena eman diogu, hozkailuaren atean kokatzen da eta bere eginkizunetako bat barneko produktuen usteltze datak gogoraraztea da. Bestalde, aholkuak ematen dizkizu, hau da, produktuak erabiltzeko hainbat errezeta emanaz. Modu honetan, hozkailuko elikagaiak epe egokian kontsumitu ahal izatea lagunduaraziko digu.

Gure helburuetariko bat kostuak murriztea denez, ez dugu langile berririk kontratatuko. Gure taldekideen baliabideetan oinarrituko gara proiektu hau aurrera ateratzeko, eta horregatik guztiak beharrezkoak gara.

Naiara gure taldeko ingeniaria da; Kenny administrazio arloaz arduratuko da; Irune informatikan aditua da; Alex izango da gure produktuaren diseinatzailea eta azkenik, Leire marketing sailean arituko da.